

B

BARREN

TOKIKOM

Historiaurrea eskuetan

Jose Julian Marquezek
historiaurreko tresnak egin ditu



ESKERTZA

IDOIA LAKA LIZASO



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

Zure familia

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



IDOIA LAKA LIZASO



*Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu benetan
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan
zeruko izarretan.
Maite zaitugu.*

2014ko otsailaren 3an hil zen,
38 urte zituela

Elgoibarko lagunak



IDOIA LAKA LIZASO



*Alaia, bizia eta saltsera,
esango deu bastante!
Bazuazela esan diguzu,
Idoia, hemendik aparte.
Denok batera ibili gera,
hala izan da gaur arte,
horregatik agurrik ez dago,
bakarrik gero arte.
Maite zaitugu.*

2014ko otsailaren 3an hil zen,
38 urte zituela

Azkoiti-Elgoibarko lagunak





Miren Vives

Aupa, Esti. Pasa den astean jakin nuen Berria Beka emakume adituena agenda digitala osatzeko izango dela, komuni-

kabideetan emakumeon presentzia parekidea ez dagoela eta honi erremedioa jartzeko asmotan. Askok poztu nau albisteak, izan ere hedabideetan aditu bati erreferentzia egiten zaionean, normalean hori gizonetako izaten da. Eta ohitu egin gara horretara. Baina ez al dago medikuntza, energia berritzaileak, ekonomia edo zientziaz hitz egingo digun emakumerik? Hori bai, gizarte zerbitzuez edo zaintza kontuei buruz hitz egiteko bai, orduan emakumeak nagusi gara. Lan munduko esparru guztietan gaudela ez da berria; orain, erakusteko garaia da. Komunikabideen eskura informazio hau jartzeak lana asko erraztuko die horiei, eta horrela errealitatearen argazki errealago bat erakutsi ahal izango digute medioek.

“Lan munduko esparru guztietan gaudela ez da berria; orain erakusteko garaia da”

Baina badago asko arduratzen nauen esparru bat. Eta ez, ez da politika, irakaskuntza edo hirigintza, umorea baizik. Zer gertatzen da umorearen munduan? Edozein filmetan pertsonaia barregarriena gizonetako izan ohi da: gutxitan ikusiko dugu neskatila bat kirtenkeriatan. Pirritx berak, pailazoa izan arren, zentzudunaren papera du, eta Lore, alaba, bertsolari atera zaigu; puzkertiak Porrotx eta Pupu dira. ETB1eko Kontrako Eztarria saioko partehartzaileak gizonetakoak dira orokorrean, noizean behin emakumezkoen bat agertu bada ere. Bai, hortxe daude Atsuak, baina horiek, errespetu osoz, trabestitutako emakume estereotipatuaren papera dute.

Eta gai honi bueltaka nenbela San Anton egunez *Hiru* antzezlanaren ikustera joan ginen. Handik atera nintzenean ez nuen inongo zalantzarik: emakumeek barrea eragin dezakegu, emakumeek egindako umorea bada, eta emakume asko izan ginen han, barrez lehertzen. Zeu tartean, Esti.



Esti Gonzalez

Arazoi galanta, Miren! Aspaldi hainbeste barre algara egin gabe nongoen. Ez zen saio motza izan, baina umore maila bikaina mantendu zen denbora guztian, horrek duen zailtasunarekin. Eszenatoki gainean hiru emakume eta gizonetako bat, eta publikoan ere proportzio hori. Honek dakarkidan galdera: ez al dugu ba emakumeek emakumeentzako umorea egingo?

Badirudi gizonetakoek egiten dutena *unisex* dela eta guztiontzat balio duela, hanka tartean zer dugun kontuan izan gabe. Emakumeek egindako lan artistiko, literario, edota pelikulak, kasu askotan emakume kontuak bailiran ulertzen dira, guri zuzenduak balira bezala. Hortxe dago erronka. Presentzia handiagotzen den heinean, normaltasuneruntz joango al gara alor honetan ere!

“Emakumeen falta sumatzen da zuzendaritza postuetan”

Gai honen ildotik, egunotan hurrengo albistea irakurri dut: 31 enpresa espainiarrek (hauek 12, IBEXen parte direnak) akordio bat sinatu dute Berdintasun Ministerioarekin erabakiak hartzen diren organuetan emakumeen presentzia %5-%20 bitartean igotzeko. Izan ere, unibertsitateetatik irten direnetatik %60 emakumeak dira. Bi titulazio dutenen artean ere %60 emakumezkoak dira. Baina IBEX enpresetako postu direktiboan %11 bakarrik dira emakumeenak. Eta ingurura begiratuz gero, egoera nahiko arrunta dela uste dut. Emakumeen falta sumatzen da zuzendaritza postuetan. Guzti honi bueltak ematen nenbela, nire alabarekin jolasean nenbilen, Barriguitas-en etxearekin. Ba al dakizu etxe barruan, apaingarrigisa, ze liburu mota dauden? Dekorazioa, moda, sukaldaritza, loreak nola zaindu.... Noizko zientzia, matematika, ingenieritza eta antzerakoak? Ezin al dute ba gure printzesek astronauta izatearekin amestu?





I. URTEURRENA

JOSEFA GARATE ARRILLAGA

2013ko otsailaren 8an hil zen, 92 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 8, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretueni eskerrak alde zuretik.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
bizitzeko



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko BAI esateagatik

Joan dira urte batzuk Mendebaldeko Saharako errefuxiatuen kanpamenduetatik urtero datorren laguntza eskaerari, Elgoibarren ere, erantzuna ematen diogunetik.

Jakitun laguntza eskean gero eta gehiago garela, bilketa egitea posible izan da aurten ere. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu; hedabide honi, azkar asko BAI erantzuteagatik; BAI esanda, janaria biltzeko lekua egin diguten Eroski eta BM supermerkatuei; gauza bera ikastetxeei; BAI esanda, botikaz hornitu gaituzten farmaziei; eta nola ez, elikagaiak emanda, BAI esan diguten herritarrei.

Eibar-Sahara Elkarte
(Elgoibarko lagunak) ☺

'Catalunya etorkizunerantz'.

Jendaurreko elkarrizketa.

Arnaldo Askatu herri ekimenetik otsailaren 14an, ostirala, arratsaldeko 19:00etan, Musika Eskolan egingo den jendaurreko elkarrizketara gonbidatu nahi zaituztegu.

Izenburua *Catalunya Etorkizunerantz*; elkarrizketatzailea, Martxelo Otamendi BERRIA-ko zuzendaria eta elkarrizketatua David Fernandez CUP alderdiko diputatua Catalunyako Parlamentean. Zalantzarik gabe, benetako bi aditu Catalunyako egoeraz herritarroi solasaldi interesgarria eskaintzeko. Animatu!

Arnaldo Askatu,
Politika Askatu herri ekimena ☺

Hotza eta beroa batera datozenean

Hego-haizea zegoen emanda, baina hego-haizea ez da beti beroa izaten. Asteartekoa benetan hotza izan zen. Eta, gainera, hotza areagotu egiten zen haize zakarra inguruan tokatzen zitzaigunean. Baserri eta baserri artean, hotza izan zen gure ezpain artetik gehien irten zen berba.

Baina hotzari eskutik helduta, beroa etorri zen otsailaren 4an. Izan ere, haizearen hotza baserriarrek eskaini ziguten berotasunarekin nahastuta izan genuen egun horretan. Berotasuna sumatu genuen, bai, baserri-atarietan; berotasuna, barrura sartzeko esan ziguten etxeetan; berotasuna, Idotorbeko tabernan; berotasuna, Aiastiako Kalamua elkartearen. Ba-

serrietako hormetako termometroek hotza markatzen bazuten ere, berotasun berezia sentitzen genuen gure baitan.

Zazpi orduko gora jardun genuen kantuan eta eskean Agedaren omenez. 43 etxe koplatu genituen, baina badakigu ez ginela denera iritsi. Ezin gara denera iritsi. Barkamena eskatu nahi dizuegu gure zain egon zineten baserriarroi. Santa Agedaren babesa eta laguntza opa dizuegu zuei ere, Elgoibarko baserriar guztioi opa dizuegun bezala.

Handia da baserriarrok Agedari eta ohitura zahar honi diozuen errespetua, eta zuek hala nahi duzuen bitartean, otsailaren 4an zuen etxeko atarietan izango gaituzue kantuan eta eskean. Datorren urtera arte.

Oharra: Ierro hauek idazten geniharduela, hotza barru-barruraino sartu zaigu berriz ere: Garagartzako Joxe hil da! Urtero egiten genien bisita Joxeri eta etxekoei otsailaren 4an. Egun hori oso berezia da Garagartzan: Joxek urteak betetzen ditu, eta berari zorionak kantatu ondoren hasten ginen kopla-kantari. Aurten ez gara joan, etxekoek hala eskatuta, Joxe gaixorik zegoelako. Eta, zoritxarrez, Joxek agur esan digu; Santa Ageda egunean, hain zuzen ere. Betira arte, Joxe, eta zerura iristen zarenean eman goraintziak Agedaren lagunak diren baserriar guztiei. Esaiezu ez garela haieztaz ahaztu; esaiezu haien etxeetara iristen garen bakoitzean sentitu egiten ditugula; esaiezu haien oroimenez eutsiko diogula kantuan eta eskean irteteko ohitura zaharrari.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea ☺

Eskerrik asko santa eskeko taldeei

Lerro hauen bidez, Mendaroko Ameikutz musika eskolak eskerrak eman nahi dizkie santa eskeko sustatzaileei, zapatuan herrian batu zuten diruaren parte bat musika eskolari ematea erabaki dutelako. Esan beharrik ez dago diru hori oso ondo etorriko zaigula gure egitekorako. Mila esker, emandako laguntzagatik. Musikariak sortzen eta musika zabalitzen jarraituko dugu guk, eta segi zuek urte askoan Mendaroko kale eta baserri auzoak kopla kantuz girotzen.

Ameikutz musika eskola ☺



2014-2015
AURREMATRIKULAZIOA
Haur, Lehen eta
Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza

Aurrematrikulazio epea:
otsailaren 3tik
otsailaren 14ra,
biak barne.



Elgoibar Arreiture BHI

San Roke, 11
 Tel.: 943 748 397
 E-posta: www.elgoibarbhi.net



Elgoibarko Herri Eskola
 Kalantza, 8
 Tel.: 943 74 08 79
 E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



elgoibar ikastola



P. M. Urruzuno Kooperatiba

www.elgoibarikastola.net 943 744441 elgoibar@ikastola.net

aurre-matrikulazioa
otsailaren
3tik 14ra



3TF3 proiektua aukeratu dute herritarrek Maalako parkea estaltzeko

638 boto eman dituzte guztira elgoibartarrek

Zortzi proiektu aurkeztu zituzten Maalako parkea estaltzeko, eta otsailaren 5era arteko epea izan dute herritarrek euren gustukoena aukeratzeko. 638 boto eman dituzte guztira elgoibartarrek, eta 196 botorekin, 3TF3 proiektua izan da herritarren gustukoena. *Txertoa* izeneko lana izan da bigarren bozkatuena, 121 botorekin, eta *He-goak ebaki banizkio* izenekoak 103 jaso ditu. Herritarren botoak %20ko balioa izango du azken erabakian. Gainerako irizpideak hauek izango dira: proposamenaren prezioa (irizpide honi puntuazio orokorraren %30 emango zaio), ingurura nola egokitzen den (%20), egitura mantentzeak zer kostu izango duen gerora begira (%15), eta gaur egun parkeari ematen zaizkion erabileretara nola egokitzen den (%15). Otsailaren 10eko astean batuko da epai-



mahaia, eta behin betiko proiektua aukeratzeko dute. Proiektu irabazlearen egileak proiektua idazteko enkargua jasoko du sarritzat. Bigarren proiektu onena, berriz, 3.000 euroekin sarituko dute, eta hirugarrena, 2.000 euroekin. Rikardo Garate El-

goibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak aurreratu du nahiko luketela udarako estalpea prest egotea. Hori hala izan dadin, otsaila bukaerarako esleituko dituzte lanak, eta maiatzean obrak hasteko moduan izango dira, Garateren esanetan.

Kiroldegiko sarrera nagusian arrapala eraikiko dute



Olaizaga kiroldegiko sarreran arrapala eraikiko dute, eskaileretatik igotzeko zailtasunak dituztenengan pentsatuta. Muskulazio gelen eta zuzendaritzakoen bulegoen azpitik eraikiko dute arrapala, eta gehienez, %8ko malda izango du. Era berean, kiroldegi barruko igogailua ere berrituko dute, araudi berrietara egokitzeko. Igerilekuan, bestalde, elbarrituentzako aldagela ere eraikiko dute. Armairuen ondoren eraikiko dute, eta zazpi metro koadro izango ditu, kiroldegira gurpildun aulkian joaten direnek erabili ahal izateko. Aldagelan, dutxa berezia ere jarriko dute.

Pilarreko aparkalekua hilabete bukaerarako izango da prest

Elgoibarko Udalak jakinarazi du Pilarreko aparkalekua, ondo bidean, hilabete amaierarako egongo dela zabalik. Guztira, 51 autorentzako lekua egongo da. Hasiera batean gehiagorentzako lekua egongo zela uste zuten, baina eraikina eraitsi zutenean bere garaian mendi hegala babesteko eraiki zituzten hormak agertu ziren, eta horrek aurreikusitako lanak aldatzea ekarri zuen. "Horma horiek eraitsiz gero, berriak eraikitzen derrigortuta gaude. Pilar etorkizunean zer izango den jakindakoan eraitsiko dira", esan du Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak.



Lekua **Elgoibar ikastolako obrak**



Elgoibar Ikastolan amaitu dituzte berrikuntza lanak. Ikasleen eta ikastolako gai-

nerakoen segurtasuna, erosotasuna eta ikastetxeko irisgarritasuna hobetzeko eta zentroak eskaintzen duen hezkuntza zerbitzua hobetzeko asmoz hasi zituzten lanak, eta urtarila amaieran itxi zuten azkeneko fasea, igogailua instalatuta. Iazko ikasturtean beste hainbat lan bukatu zituzten: DBHrako sei gela berri –laborategia barne– eta bilera gela handia. Solairu horretan bertan, jolasteko gune estali bat eta komun berriak ere egin zituzten, tartean ezinduentzakoa. Bigarren solairuan erabilerara anitzeko gela ere zabaldu zuten.

Aurten, ikasturtea hasi zutenetik sarre-irteera berriak bideratu dituzte, eta kanpoko espazioetan ere berrikuntzak egin dituzte: ikastolako atari nagusian haur txiki-entzako jolaserako egokia den zoria jarri dute, adibidez.

Izena **Maria Anjeles Zabala**



San Blas opilen lehiaketa egin zuten Soraluzen San Blas egunean, eta beste behin ere, Maria Anjeles Zabalak irabazi du. Elgoibarren bizi da Maria Anjeles, baina jaiotzez plaentxiarra da, eta azken urteetan beti hartu du parte Soraluzeko lehiaketa honetan. Bederatzi lagunek hartu dute parte aurten. Txapelketa irabazteaz gain, San Blas opilak nola egiten diren ikasteko saioa ere eskaini zuen Maria Anjelesek.

Elgoibarren eta Mendaron, bestalde, asko izan ziren ohiturari jarraituz, astelehenean San Blas opilak bedeinkatu zituztenak. Horrez gain, lepoko kordelak ere bedeinkatu zituzten askok, eta jantzi ere bai. Tradizioaren arabera, bedeinkatutako kordela jantzen duenak urte osoan ez du eztarriko minik izango. Bederatzi egunez jantzi eta gero erre egin behar da.

‘Gure esku dago’ ekimenaren bilera astelehenean

Erabakitzeko eskubidearen alde jaiotako *Gure esku dago* ekimena Euskal Herri osoan, eta ekainaren 8rako Euskal Herria zeharkatuko duen giza katea osatu nahi dute. Elgoibarrek ere dinamika horretan parte hartu dezan, astelehenerako deitu dute lehen batzar herritarra. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan.

Sukaldaritzako ikastaroa, familian

Familiaren hizkuntza transmisioa lantzeko, sukaldaritzako ikastaroa antolatu du Elgoibarko Izararren Atxutxia- maika aisialdi taldeak Haur Hezkuntzako laugarren mailatik Lehen Hezkuntzako bigarren mailara arteko umeentzat eta haien gurasoentzat. Bi saio izango dira guztira: otsailaren 15ean eta 22an, 16:00etatik 18:00etara. Bi saioak Ludotekan egingo dira. Ikastaroetan parte hartzeko, gutxienezko euskara maila izatea eskatuko zaie gurasoei, eta ume bakoitzarekin guraso batek parte hartuko du tailerrean. Otsailaren 12ra arteko epea eman dute izena emateko, eta bi aukera jarri dituzte: Elgoibarko Izararren bulegora joanda edota Internet bidez (www.elgoibarkoizarra.com). Interesatuek 8 euro ordaindu beharko dituzte bi saioengatik (Elgoibarko Izararako bazkide direnek, zazpi euro).

Etxe kaleratzeen kontrako plataformaren bilerak

Etxe kaleratzeen gaiak ez du inor oharkabea utzi. Gero eta gehiago dira kasuak, gero eta gehiago dira Kaleratzeak Stop Debarrenako taldekoengana kezkatuta joaten diren herritarrak. Egoera horretan egon daitezkeenentzako edo laguntzeko prest daudenentzako harremanetarako telefono zenbaki hau jarri du eskura elkarteak: 627 934 675. Kaleratzeak Stop taldekoak eguenero batzen dira Eibarren, Portalean, 19:00etan.

JOSE JULIAN MARQUEZ

ARTISAUA

“Historiaurrera
hurbiltzeko
aukera eskaini
nahi diet
elgoibartarrei”

Betidanik izan ditu gustuko natura eta mendia Jose Julian Marquezek. 11 urterekin bonsaiak sortu eta zaintzen hasi zen, eta gaur egun oraindik zuhaitz txiki horiekin lanean jarraitzen du. Aldi berean, baina, beste zaletasun bati ekin dio: historiaurreko tresnagintzan trebatzen hasi da. Historiaurrean gizakiak nola bizi ziren ikertzen jardun du, eta haien bizimodua nolakoa zen ikasteaz gain, ehiza zein arrantzarako erabiltzen zituzten tresnen erreplikak egin ditu. Orain dela 800.000 urteko tresnetatik hasi, eta K.a. 2000. urtera artekoak egin ditu. Euskal Herrian erabilitako tresnez gain, Indoeuropearrak ere kopiaitu ditu. Denak jarriko ditu ikusgai bihar Kultur Etxean, eta otsailaren 22ra arte egongo da erakusketa zabalik.

Nola hasi zinen historiaurreko gizakiaren tresnak egiten?

Txikitatik gustatu izan zaizkit mendia eta naturarekin zerikusia duten gauzak. 11 urte nituela bizilagun batek esan zidan bonsai bat egin behar zuela. Bitxia iruditu zitzaidan, eta neuk ere probatu egin behar nuela erabaki nuen. Bizilagunak utzi zion bonsaiak egiteari, eta nik oraindik jarraitzen dut. Aurten, baina, ez daukat azokara irte-teko asmorik; deskantsua hartuko dut. Bonsaigintzarekin batera, fosil eta mineraletarako zaletasuna ere badaukat, eta ume-tan dinosaurioen munduak ere izugarri erakartzen ninduen. Historiaurrea beti gustatu izan zait. Liburuetan eta Interneten informazio pila bat aurkitu dut, eta tresnak ikusi nitueanean, neuk ere egin ahal nituela pentsatu nuen. Langabezian geratu nintzen, eta denbora nonbaiten pasatu behar nuen. Ez dakit geldirik egoten, eta zerbait egin beharra sentitzen nuen. Arratsaldetan ikastera joaten naiz, eta goizetan historiaurreko tresnak egiten ditut. Bost hilabeteetan tresna pila bat egin ditut, eta lanean jarraitzeko asmoa daukat. Denbora pasatzeko modu polita aurkitu dut, eta ez daukat lagatzeko asmorik.

“Orain dela 3.000 bat urteko aizkora bat aurkitu nuen Elgoibarren”

Bihar jarriko dituzu ikusgai tresna guztiak Kultur Etxean. Zer ikusiko dugu erakusketa horretan?

Historiaurreko gizakiek erabiltzen zituzten tresnak dira. Labanak, aizkorak, lantzak... jarriko ditut ikusgai. Orain dela 800.000 urte erabiltzen zituzten tresnak ikusi ahal izango dira, besteak beste. Pieza oso bitxiak eta bereziak egongo dira. Batzuk baliu handikoak dira, gainera, horregatik bitri-na barruan jarriko ditut. Ordu askotako lana dago pieza horien atzean, eta batzuk 200 bat euro balioko dute. Adibidez, De-

ban aurkitu zuten pieza bati zati bat falta zitzaion, eta nik osorik egin dut, orijinala zeneraren bezalakoa. Piezak benetan ziren bezala ikusteko aukera eskainiko dut erakusketan. Nolabait esateko, erakusketa didaktikoa ere bada. Euskal Herrian eta Iberiar Penintsulan bizi izan diren gizakien berri ere emango dut, Homo Antecesor-etik hasita, Homo Sapiens arte. Gizakia kobazuloetan bizi zenetik gaur egungo teknologia erabiltzen hasi arteko ibilbidea jasoko dut, hau da, harrizko tresnak erabiltzetik sakeleko telefonoa erabiltzera nola pasatu garen azalduko dut erakusketan. Historiaurrea gerturatu nahi diet herritarrei, baina aldi berean, arkeologian adituak direnekin kontaktuan jarri nahi dut. Erakusketa honen bidez nire lana ezagutzera eman nahi dut.

Zein da erakusketan jarriko duzun pieza bereziena?

Denak dira interesgarriak, baina orain dela urte batzuk historiaurreko aizkora bat aurkitu nuen Elgoibarren, eta estimu handian daukat. 3.000 urte inguru izango ditu. Moru mendian brontze eta burdin garaiko herrialde bat dago, eta seguruenik hango gizakiena izango zen aizkora hori. Morterika inguruan aurkitu nuen. Orijinala ondo gordeta daukat, baina haren erreplika jarriko dut ikusgai. Neanderthalen garaiko beste bi pieza ere aurkitu nituen Elgoibarren, eta horiek ere eramango ditut erakusketara. Moru sekulako ondare historikoa dago; ikus-tea merezi du. Gustatuko litzaidake egunen baten museo bat edo zerbait irekiko balute Elgoibarren, horrelako altxorak gordetze-ko. Pieza horiek Elgoibarren geratzea da nire ilusioa, Elgoibarkoak direlako.

Nola ikasi duzu tresnak egiten?

Neure kabuz ikasi dut dena; gai honetan autodidakta izan naiz. Garai hartan erabiltzen zituzten materialei buruzko informazioa aurkitu dut, eta saiatu naiz dena haiek egiten zuten bezala egiten. Eskuekin trebezia berezia dudala konturatu naiz, eta oso gustura geratu naiz egindakoarekin. Sua egiten ere badakit, adartxoak eta harriak erabiliz, baina aditu batek pikondoaren adarrekin sua egiten irakutsiko dit. Sua egiteko teknika desberdinak menperatzea nahi dut.

Nondik lortu duzu tresna horiek egiteko materiala?

Andaluziatik ekarri dut, bereziki. Pieza

gehienak egiteko oreinaren adarrak erabili ditut. Horrez gain, jendeari esan diot zertan ari naizen, eta batzuek gauza interesgarriak gorde dizkidate. Azken batean, historiaurrean erabiltzen zuten material berbera erabiltzen ahalegindu naiz. Tresna batzuk silex harriarekin egin ditut, lehen egiten zituzten modu berean. Esperimentatzen hasi nintzen, eta benetan diot tresna batzuk berdin-berdinak irten zaizkidala. Tresna batzuetan prozesua azkartu egin dut, gaur egun medio gehiago ditugulako, baina gehienak saiatu naiz garai hartan egiten zuten bezala egiten. Hori da interesgarriena.

“Tresna batzuk silex harriarekin egin ditut, lehen egiten zituzten modu berean”

Nongo piezak egin dituzu?

Euskal Herrian eta Iberiar Penintsulan erabiltzen ziren tresnak dira gehienak, baina gizaki indoeuropearrek erabiltzen zituztenak ere egin ditut, esaterako, Suedian erabiltzen zuten aizkora bat, Danimarka edo Frantziako armak... Ameriketako gizakien tresna batzuk ere badituzte, zibilizazio Aztekak edo Mayak erabiltzen zituztenak.

Ehizarako tresnak egiten eta sua egiten jakinda, ‘El conquistador del fin del mundo’ saioan parte hartzeko moduan zaude.

Ba bai! Edozein materialekin tresnak egiteko gai naiz. Joan zen asteburuan semearekin parkean nengoela egin nuen tresna bat, zuhaitz adar batekin. Parkeko barandaren kontra arraskatuz eman nion forma. Semearekin egin izan ditut pieza batzuk, eta berari ere izugarri gustatzen zaio hau guztia. ‘Conquis’ bezalako bizirauteko programa horietan ez nintzateke gaizki ibiliko, baina ez dut nire burua horrela koetan ikusten. Telebistan agertze hori ez doa nirekin.

‘Pausorik pauso atera gera, gaurko dozena bat gazte[...]

[...] Santa Ageda bihotzekuak, merezi zaban hainbeste’. Makina bat bider abestu zuten koplak hori Santa Ageda bezpera egunean Elgoibarko Izarrekin santa eskean irten ziren lagunek. Guztira, 43 baserri koplatu zituzten. Mendaroko eta Elgoibarko ikasleak ere martitzenean irten ziren koplak kantari. Etxegiña taldekoak eta Mendaroko eskeko taldeak, berriz, joan den zapatuan ibili ziren kantuan eta eskean. Mendaron 2.790 euro batu zituzten eta aurten Musika Eskolari eman diote dirua. Elgoibarko Etxegiña taldekoek, berriz, 1.150 euro batu zituzten Caritasentzat.

Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoiBARREN.net



Urtero legez, baseritarrak ondo baino hobeto portatu ziren limosna emateko orduan.



Harrera beroa eta dantzarako giroa



Etxean norbait dagoen jakin ez arren, abestu egiten dute.



Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 25 lagun inguru batu zituen santa eskean aritzeko.



Areitio eta Meababasterretxea Urkiola Handin bertsoan.



Etxegiña taldeko kideak Sa



Elgoibarko Izarrakoek 43 baserri koplatu zituzten Santa Ageda bezperan.



Narbaiza eta Ziarda bertsotan, koplarietz inguratuta, Zeleta baserriko atarian.



Etxegiña taldearekin 75 lagun inguru aritu dira aurten. Arg: Soarte.



dapa baserrian.



Etenik gabe egin zuen euria joan den zapatuan, baina horrek ez zituen santa eskeko koplariak kikildu.



Lazaro egoitzan kantuan.



Elgoibar Ikastolako ikasleak kalejiran, Santa Ageda bezperan.



Mendaroko ikasleak Mendarozabalen kantuan.

■ ARGAZKI ERREPASOA



Herri Eskolako ikasleak, makila eskuan eta kopla zaharrak ahoan.



Mendaroko Santa Eskeko taldea, Bideburu baseritik bueltan.



Lasalde-Torre baserriko atarian.



Billale baserriko atarian.



Batutako dirua Ameikutz Musika Eskolari emango diote Mendaron.



Urte askoan santa eskean ibilitakoak omendu zituzten Mendaron: Iñaki Elortza, Juanito Loiola, Sabin Longarte, Jabier Urbieta, Isidro Astorkia eta Bitoriano eta Manuel Loiola.



Herriko kale eta baserri guztiak koplatu zituzten Mendaron, hiru taldetan banatuta. Argazkian, taldeetako bat.

ESKERTZA



XABIER OTAL ABARRATEGI

*Langile gogotsua,
adiskide leiala,
senide bihotz-zabala,
senar paregabea,
aita eta aitxitxa ezinhobea.*

Zure falta igarriko dugu guztiok.

Etxekoak

2014ko urtarrilaren 31n hil zen,
61 urte zituela.



XABIER OTAL ABARRATEGI

*Tio Xabier: Izan zara
jatorra eta aparta
Almenara eta Elorrixa ziren
zuretzat amasa
bat-bateko adioak
utzi gaitu lur jota
ez agur, ez adio
bihotzean baitzaitugu gordeta.*

Zure ilobak

2014ko urtarrilaren 31n hil zen,
61 urte zituela.



IDOIA LAKA LIZASO

*Zure akorduan,
irribarrea beti ezpainetan,
kemena zainetan,
bihotza bero egunik hotzenetan,
ederra zen benetan
zurekin geundenetan,
hala izaten segiko du
gure bihotzetan.*

Biok Elektrizitatea

2014ko otsailaren 3an hil zen,
38 urte zituela



David Fernandez

KAZETARIA ETA CANDIDATURA D' UNITAT
POPULAR ALDERDIKO DIPUTATUA

Gizarte mugimenduen bueltan egin du bidea David Fernandezek, eta gaur, CUP Candidatura d'Unitat Popular alderdiko diputatua da Kataluniako Parlamentuan. Izaitez, baina, kazetaria da, eta ofizio berean urteak daratzen lagunak, **BERRIA** egunkariko zuzendari Martxelo Otamendik, egindako galderei erantzungo die gaur zortzi, Elgoibarko musika eskolan (19:00). Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak antolatu du aurrez aurreko elkarrizketa hau, *Catalunya etorkizunerantz* izenburupean, eta elkarrizketatuak eta elkarrizketatzaileak urteetan izan duten harremana ikusita zalantzarik ez da joko emango duela ['Plataforma per Egunkaria'-ko bozeramailea izan zen, besteak beste, Fernandez Katalunian]. Elkarrizketa horren harira, Kataluniaz, euskal auziaz eta Arnaldo Otegi berari buruz jardun dugu Fernandezekin, urtarrilaren 11ko manifestazioaren ondorenean idatziz egindako elkarrizketan.



“Jarraitzen dugu pentsatzen Arnaldo Otegiren ekarpena funtsezkoa dela gaur”

Kooperatibismoaren eta gizarte mugimenduen mundutik zatoz. Orain, diputatu zara, CUPen bozeramaile. Nola daramazu parlamentari izatearena? 'Kalea da nire eskola' esan izan duzu. Ez daukazu beldurrik kaleko-enganetik urruntzeko?

Aurkariaren lurretan bageunde moduan da, lur urrunean, aurkariaren joko-eremuan. Guretzat Matrix da hau. Pilula gorria aukeratu beharra dago beti: errealitatearen pilula. Baina ikasten ari gara; boterea gertutik urruntetik

baino finagoa dela ikasten, eta demokrazia edukiz, gaitasunez eta berez daukan indarrez nola hustu eta larrutu duten deskodetzen. Beldurrik ba ote dudan? Seguru baietz, eta eskerrak badaukadan!. Iraun dezala beldurrrak, zantzu ona da eta, azken batean, beldur hori delako gure antidotarik onena. Zuk aipatzen duzun arrisku horren kontra, praktika eta kontzientzia daude. Batzarretan eta autogestioan oinarritutako praktika politiko alternatiboak daude, CUP barruan suebaki edo

suhesi funtzioa betetzen dutenak: 1.400 euroko gehienezko soldata, legegintzaldi bakarra, ardura bat baino gehiagorik ez aldi berean... Oroimena eta kontzientzia ere badauzkagu, eta beste ezeren gainera, kalekoekin lotzen gaituen zilborrestea daukagu. Beti diogu: sei hanka gara Parlamentean, baina 256.000 gara kalean. Eta hor dago gure indarra; kaleko dinamikan eta herritarrek aktibatzean. Eta gure lanak egindakoan, jakina, eskolara bueltatuko gara; hori bai, ikasgai

berriak ikasita, eta botere sistema negargarri honen kontra egiteko eta aldaketa sustatzeko behar dugun ezagutza eta argumentu guztiekin.

Zuk zeuk onartu izan duzu CUP parlamentura iritsi bada, neurri handi batean, jende askok ezkerreko izan duen desengainuagatik izan dela. Europar eskuina hazten ari da. Krisian dago ezkerre?

Jakina. Hobe da, gainera, onartzea eta esatea, eta berriro saiatzea. Ezkerreko guztiei —ezker irreal horri— egindako osoko zuzenketak da CUPek izan duen babesaren oinarria, eta hori oso urruti dago hitzartutakoak sindikalizatzen. Boterea biolina bezalakoa dela dioen maximarekin higuinduta dago jendea: biolina ezkerrekin hartzen da, eta eskuinarekin jo. Higuinduta daude, gaur merkatuek, Troikak, eta Krugmanek eta Harveyk esango luketen moduan, desberdintasun handiak sortzea eta gehingoari duen guztia kentzea sustatu duten beste botere faktikoei agintzen dutelako. Sekula ez zioten gutxi batzuk horrenbesteri hainbeste lapurtu horren denbora gutxian. Horregatik egiten dugu bat 15M-koen [Suminduen Mugimendua] leloarekin: 'Non dago ezkerre? Han atzean, eskuinetara'. Edo ahaztu zaigu banketxeak salbatzea Zapaterok agindu zuela, dekretuz, edota bere agintaldiko Ministroen Kontseiluaren azken keinua bankari bat indultatzea izan zela? Aipamen berezia merezi du Europako proiektu sozialdemokrataren gainbeherak. Eskuinaren garaipenak —populismoaren eta eskuin muturraren loraldiak lagunduta—, neurri batean, ezkerreko alderdien autoharakiria zuten oinarrian. Europa hegoalde jipoitu honetan eta krisiak, langabeziak eta beste prekarietate askok degradatutako Herrialde Katalanetan pentsatu beharra daukagu transformazio proiektu burujabea zer den, eta nolako izan behar duen.

Independentziaren gaiaren inguruan ere eztabaida handia sortu ohi da. Jende batek autodeterminazio eskubidea onartzen du, baina independentzia ez. Zuk esan izan duzu independentzia proiektu bat baino gehiago dela. Zer da? Nola daramazu eztabaida hau? Demokraziaren klabeetan. Gaur, nabarmen, gizarte kataluniarraren %80 galdeketa egitearen alde daude. Hau da, etorkizuneari herri hau zer izango den galdetzearen alde daude. Guretzat independentzia proiektua, bitartekoa eta metodoa da. Hirurak batean, eta al-

di berean. Independentzia ez da, beraz, helmuga; gehiago da abiapuntua. Guretzat independentzia bitartekorik onena da herrialde osoa demokratizatzeke, herri-subiranotasunera itzultzeke eta gure leloak dioen moduan 'dena aldatzeke'. Zertaz independentziari nahi dugu? Bada, botere-egitura eta egitura menderatzailea duen estatu espainolek, bizitza ezinezkoa egiten diguten finantza-merkatuetatik eta geure oligarkia propiotik. Ez da gutxi, ezta? Independentzia herri hau bere jabe legitimoari itzultzea da; herritarrei, alegia.

“Herritarrek izan duten eta duten protagonismoa da Kataluniako prozesuaren giltzarria”

Mariano Raxoi Espainiako presidentek ziurtatu du Katalunian ez dela galdeketerik egingo. Antzeko zerbait gertatu zen Ibarretxeren planarekin. Zer daukazu esateko?

Agertoki ireki, ziurgabe eta arrisksuan gaudela. Garbi dago dagoeneko galdeketa debekatuko dutela eta gatazka demokratikoa azaleratuko dela beste behin ere. Gatazka politikoa, eta ez gatazka juridikoa. Espainiako legeria konstituzionala eta Kataluniako legegintzaren demokratikoaren borroka izango da. Ikusiko dugu. Baina halakoetan, hauxe esatea tokatzen zaigu: arazoa ez da besteek zer egingo duten, guk zer egingo dugun baizik. Jende askok galdetzen digu: galdeketa egingo da? Galdera hori aldatu behar dugu: kontua ez da galdeketa egingo den edo ez, galdeketa hori egin ahal izateko zer egin behar dugun baizik. Eta hor bermerik onena jendea da, gizartea, herritarren aktibatzea.

Euskal Herrian gertutik jarraitu genuen Katalunia alderik alde zeharkatu zuen Via Catalana delako giza-katea. Hemen, Gure esku dago ekimenak giza-kate bat osatzera deitu du ekainerako. Bi helburu jarri dituzte: erabakitzeko eskubidea aldarikatzea eta herritarrak aktibatzea. Zer papel betetzen dugu herri-

rrok, eta zenbatean gaude aktibatuta?

Herritarrek izan duten protagonismoa izan da eta da Kataluniako prozesuaren giltzarria. Frankismotik datorren marko juridiko-politikoari gain hartu diona gizarte mugimendua izan da: 555 galdetegi egin dira, 900.000 boto bildu dira alde, diktadura amaitu zenetik gaur artean egin diren mobilizazio jendetsuek egin dira, eta azkenik, hor dago Via Catalana giza-kate ikusgarria. Gizartea lehen mailako aktore politikoa da. Prozesuaren tenkatzailea eta kuxina.

Harreman estua izan duzu beti Euskal Herriarekin, eta bereziki ezker abertzalearekin. Badakigu gertutik bizi duzula hemen gertatzen ari dena. Zer balorazio egiten duzu? Zer iragartzen diguzu?

Estatu espainolaren itxikeria, egoskortasun eta blokeoak hordagokoa izaten jarraitzen du, sekulakoa. Eskema zaharkituei lotuta jarraitzen dute, eta desgaste-gerra da euren estrategia. Guretzat ezker abertzalea izan da agertoki politiko berria ahalbidetu duen motorra. Gatazkaren konponbideari, askatasun politikoa eta justizia sozialari dagokionean onena opa diogu Euskal Herriari, jakina. Eta etor dadila lehenbailehen. Bultzatzen behar da, hori bai.

Tantaz Tantak aurrez Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu zuen manifestazioa bertan behera laga ostean, ehunka milaka lagun irten ziren Bilbon kalera EAJK eta EHBilduk egindako deialdiari erantzunez. Zeu ere egon zinen. Nola ikusi zen Kataluniatik?

Ikuspegi ezberdinetatik, gizarte plural batean tokatzen den bezala, baina orokorrean, esango nuke debeku inkisitorialei eta obsesio errepresio bati emandako erantzun handi eta argizat hartu zela. Men ez egitea bada agertoki politiko berriak sortzea ere. Ikuspuntu horretatik, Estatuak nahi zuen debekuen indargabetze magistrala izan zen. Marea. Tsunamia.

Askok EAJren kontra egin zuten, Bilboko manifestaziorako EHBildurekin bat egin zuelako. Horrek egin zuen, beharbada, Andoni Ortuzar EAJKo presidentek azalpenak eman behar izatea. “Ez dugu inolako fronte politikorik sortuko”, esan zuen. Aukerarik ikusten duzu EAJK eta EHBilduk bidea elkarrekin egiteko? Edo beste askotan legez ezerezean geldituko da Bilborako egindako ahalegina?

Errespetu handia diot Euskal Herriaren bo-

rokaririk hori muturra sartzeko. Hala ere, gustatuko litzaidake EAJ eta beste eragile batzuk bizi dugun garai politikoak eskatzen duen mailara jarriko balira. Betiko mila kontraesanekin, jakina. Gure kasuan, esaterako, prozesuaren parte batean –instituzionalean– CIUrekin bat egiten dugu autodeterminazioaren gaian, nahiz eta gero eurek aurkezten dituzten aurrekontuen eta politika sozioekonomikoen kontra egiten dugun.

Euskal Herriak jendeak aldaketa eskatzen du. 2013ak ez du ekarri eskatzen zitzaien dena. 'Indarrak batu behar ditugu', diote orain guztiek. Zeinekin, eta zertarako?

Zaharra ez da guztiz hil eta berria ez da jaiotako, eta jakina, halakoetan beti sortzen dira argi-izunak. Gaur ez dago inor sobera. Guztiz kontrakoak: jendea falta da. Batura beti da on, eta batura batzuk, gainera, biderketa bihurtzen dira azkenekira. Krisiak gogorren jotako sektoreekin, herri-sektoreekin eta sekula erdi mailako izan ez diren erdi mailako klaseekin batu behar ditugu indarrak. Garrantzitsua da, era berean, aldaketaren sustatzaile nagusi diren gizarte mugimenduekin konplizitate sareak ehuntzea, beti ere haien autonomia errespetatuz. Sareak ehundu behar ditugu klasikoekin —ekologismo soziala, feminismoa, antimilitarismoa, kooperatibismoa—, eta baita molde berriekin ere: Hipotekak Kalte Eginikoen Plataformakoeekin (PAH), etorkinak babesteko taldeekin... eta, oro har, herri-proiektu justuago, etikoagoa eta solidarioa egiten duten guztiekin.

Arnaldo Otegi preso segitzen du, Logroñon. 'Arnaldo askatu, politika askatu' plataformak gonbidatu zaitu Elgoibarrera. Zer daukazu esateko Arnaldo Otegitaz?

Niretzat ohorea eta harro egotekoa da horra joatea, baina beste ezerean gaineratik, Otegi-ren bahiketa politiko horren kontra egiteko sentitzen dudana betebeharrak etorkia asetzeko da horra joatea. Arnaldo eta bere antzera bidegabe preso dituzten beste asko aske laga ditzaten exijitzeko beste aukera bat izango da. Edonola ere, espero dut gonbidapen hau egin didatenean merezi duten mailan erantzuten asmatzea.

Bere garaian Arnaldo Otegi uko egin zion Kataluniari erabakitzearen eskubidearen inguruko batzordean parte hartzeari, Katalunian abiatu zen prozesuaren kontrako prozesua oztopatzeko erabiliko lukezela arrazoituta. Ikusita zenbat koloretako jende



eta zenbat herrialdeetako jendea erakarri duen, inork gutxi jarriko du zalantzan Arnaldo Otegi karisma duenik. Zer dauka emateko Otegi bizi dugun garai honi?

CUP-Alternativa d'Esqueres-ek egin zion eskaerak bi alde zituen: sinbolikoa eta politikoa. Sinbolikoa, bere kartzelatzea salatze-ko, gogorazteko eta ikusarazteko modua zelako, eta politikoa, garbi dagoelako Euskal Herriari eta Kataluniarri eragiten dien gordiar korapiloa —prozesu ezberdinak izanda ere— bat bera dela bi kasuetan: Estatu espainolak bi herri horiei ukatzen dien autodeterminazio eskubidea. Eta perspektiba horretatik —zailtasunak, konponbiderako mekanismoak, subiranotasunak— jarraitzen dugu pentsatzen Arnaldo Otegiaren ekarpena funtsezkoa dela gaur. Hartu zuen erabakiak, nola ez, errespetu osoa merezi du, baina orduan ere komunikabideetara aurretik iritsi zen erabaki horren berri, guri zuzendutako gutun hura *El País* egunkariko erredakziora iritsi zelako, gurera baino aurretik. Espainia markaren kontuak!

'Euskaldunon Egunkaria' itxi izana salatze-ko Katalunian sortu zen plataformaren bozeramailea, Gara egunkariko kolaboratzailea, Euskal Herriaren laguna, eta diputatua, CUP alderditik. Besteak beste, hori zara zu.

Sekula ez duzu arriskurik sentitu dena ETA da babesten dutenen zakuan jausteko?

Bueno... Barre egin beharko dugu. Uste dut bagaudela dagoeneko. 'Inguru, nebulosa eta garro', hala diote. CUPen kontra sarri erabilzen duten jarduna da, baina guk beti egia esaten dugu. Edonola ere, aspertu ditugu, itxura batean. Ciudadanos alderdiko diputatu batek Parlamentean gu Arnaldo Otegiaren alde geundela oihu egin zuen lehen egunean, guk txaloka erantzun genion baietz, hala zela egiaz. Eta hor amaitu zen funtzio hura. Baina [Baltasar] Garzonen 'dena ETA da' hura Hipotekak Kalte Eginikoen Plataformakoen kontra ere entzun da; azken batean Boterearen monologoaren kontra ahotsa altxatzen duen edonoren kontra bihurtu da hori. Rodrigo Ratorri sandalia erakutsi nion egun hartan, *El Mundo* egunkariko zutabegile batek 'ETAren txoferra' izenez bataiatu ninduen. Gidabaimenik ez daukat, baina 2005. urtean Arnaldo Otegiaren liburuaren aurkezpena koordinatu nuen Bartzelonan, eta horrexegatik aipamen hori. Buelta eman behar zaio: Beraientzat iraina dena guretzat laudorioa da.

San Juan Bosco eta IMH egunak ospatu zituzten joan zen barixakuan

Eguneroko eskolak alde batera utzita, San Juan Bosco Eguna ospatu zuten BH Institutuan eta Mekan, eta IMHkoek berriz, IMH Eguna ospatu zuten. Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoIBARREN.net



Sukaldean trebeak direla erakutsi zuten ikasleek.



Tailerreko tresnak erabiliz, txapelketa bitxia egin zuten IMHn.



Giro onean joan zen futbito txapelketa.



Emozio eta lehia bizia izan zen IMHko futbolin txapelketan.



Dotoreziaz jaurti zituzten txapelak IMHn.



Ez zen umorerik falta izan IMH Egunean.

‘Ahotsak’ proiektukoak Elgoibar Ikastolan izan dira, grabazioak egiten

Elgoibarko euskara sustatzeko ekimenak erakarri ditu



Badihardugu kultur elkartekoak Elgoibar Ikastolan izan dira, ikastetxe honek Elgoibarko euskara eta ahozko ondarea zabaltzeko duela urte batzuk sortu zuen egitasmoa ezagutzen. Ahozko hizkera unitatearen barruan, ipuinak elgoibartarrez jarri eta ikastetxeko txikienei irakurtzen dizkiete DBH3ko ikasleek, gelaz gela joanda, eta proiektu horretxek erakarri ditu Ahotsak.com egitasmoaren sustatzaileak. Hainbat grabazio egin zituzten ikastetxean, gero euren webgunean esegitzeko (www.ahotsak.com).

Badihardugu elkarteak berak badu antzeko programa bat, Ahotsak ikasgelan izenokoa. Ahozko ondarea, memoria historikoa eta transmisioa ikasgelan lantzeko materiala ikastetxeen eskura jarri dute. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Eibarko hainbat ikastetxetan abiatu zuten proiektu pilotua 2010. urtean, eta ordutik gure inguruko beste hainbat ikastetxetara ere zabaldu dute ekimen hau, helburu eta metodologia ezberdinekin.

Matrikulazioa zabalik Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak jakinarazi du matrikulazioaldiak jarraitzen duela. Interesatuak 943 742 731 telefono zenbakira deitu edota Kalebarren, 2 helbidean duten egoitzara jo behar dute.,

Elgoibarko dantzariak Legazpiako txapelketan

Gaizka Uranga, Oihane Agirrebeña, Irati Marcos eta Amaia Astigarraga, Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleak, Legazpin lehiatu ziren zapatuan. 11 mutil eta hogeit hamar neska lehiatu ziren guztira. Txukun aritu ziren elgoibartarrak. Hurrengo txapelketa Villabonan jokatu dute elgoibartarrek, domekan. Elgoibartik, Naroa Lopez, Saioa Marcos eta Maialen Loiola joango dira.



I. URTEURRENA

JULIO URBIOLA ELOSEGI

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*



2013ko otsailaren 7an hil zen. I. urteurrenako meza zapatuan, otsailaren 8an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztuz aurretik.



Concepto Egilek bigarren sailkatuaren kontra jokatu du domekan etxean

Lehen postuari eustera irtengo dira jokora elgoibartarrak



Saikapen nagusiko lehen postuan dago Concepto Egile areto futbol taldea, eta lidergoari eusteko asmoz irtengo da Olaizagako kantxara domekan. Pinseque bigarren sailkatua izango dute elgoibartarrek aurrez-aurre, eta "partida gogorra eta parekatua" izango dela aurreikusi dute klubeko arduradunek. Pinseque taldeak Iruñeko Xota taldearen kontra galdu zuen azaroan, baina ordutik partidarik galdu gabe dago. Elgoibartarrek galdu egin zuten joan zen astean Fuenmayor taldearen kontra. Une honetan 37 punturekin daude Concepto Egile eta Pinseque, baina golak zenbatuta, elgoibartarrak dira liderrak.

Klubeko arduradunek partida garrantzitsua izango dela adierazi dute, eta herritarrei egin diete deia, domekan Olaizaga kiroldegira joateko. Partida 12:00etan hasiko da.

Gipuzkoako selekzioarako probak egiten ari dira Sanloko infantil mailako neska-mutilak



Sanloko infantil mailako neska-mutilak Gipuzkoako eskubaloi selekzioarako probak egiten ari dira. Bankoa taldeko mutilek lehenengo proba gainditu dute, eta Ikus taldeko neskek, bigarrena ere pasatu dute.

Seniorrak, lehian

Joan zen asteburuan etxetik kanpo jokatu zuten senior mailako nesken zein mutilen taldeek, eta emaitza desberdinak eskuratu zituzten. Lauko taldeko neskek Camargo sailkapen nagusiko hirugarren sailkatuaren kontra jokatu zuten Santaderren, eta 32-25 galdu zuten elgoibartarrek. Asteburu honetan etxean jokatu du Igor Lizarralde entrenatzen duen taldeak. Zarauzko Aiala taldea izango dute aurrez-aurre elgoibartarrek. Alkorta senior mutilen taldeak 23-25 irabazi zion Pulpo taldeari Zumaian, eta puntu garrantzitsuak ekarri zituzten etxera. Asteburu honetan Egia taldearen kontra jokatu dute Olaizaga kiroldegian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Balmaseda 0 (3. maila)
 Elgoibar 0 – Lazkao 3 (Erreg.)
 Tolosa 6 – Elgoibar 1 (Neskak)
 Ordizia 3 – Elgoibar 1 (Jub.)
 Elgoibar 1 – Lazkao 0 (Kad. A)
 Aurrera 0 – Elgoibar 10 (Kad. B)
 Elgoibar 0 – Amaikak Bat 2 (Inf.)
 Ilintxa 2 – Elgoibar 1 (Inf. txiki)

ARETO FUTBOLA

King-Kong Elg. 13 – Laskorain B 0 (Jub.)
 Fuenmayor 5 – Concepto Egile Elg. 4 (2B)

ESKUBALOIA

Camargo 32 – Lauko Elg. 25 (Sen. neska.)
 Pulpo 23 – Alkorta Elg. 25 (Sen. mut.)
 Usurbil 19 – Gabaz Elg. 22 (Sen. mut.)
 Astigarraga Elg. 21 – Errotaberri 17 (Jub. neska.)
 Ordizia 23 – Beristain Elg. 25 (Jub. mut.)
 Tecnifuelle Elg. 22 – Errotaberri 14 (Kad. mut.)
 Txarriduna Elg. 39 – Amenabar 20 (Kad. mut.)
 Pneumax Elg. 30 – Aloña Mendi 27 (Kad. mut.)
 Cometel Elg. 34 – Aiala 7 (Inf. neska.)
 Aloña Mendi 19 – Deca Elg. 28 (Inf. mut.)
 Ikus Elg. 22 – Pulpo 13 (Inf. neska.)
 Eibar 14 – Bankoa Elg. 36 (Inf. mut.)
 Aterpe Elg. 29 – Aiala 10 (Inf. neska.)
 Aloña Mendi 11 – Sukia Elg. 36 (eskola neska.)

PILOTA

Lagunak 17 – Iparaldekoak 22 (1. mailako nag.)
 Lagunak 17 – Zestoa 22 (2. mailako jub.)
 Legazpi 22 – Lagunak 18 (3. mailako kad.)
 Pala
 Urnieta 6 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8
 11:30 Elgoibar – Zarautz (Kad. B)
 16:30 Elgoibar – Ilintxa (Jub. A)
 Domeka, 9
 12:30 Elgoibar – Berrioxoa (Neskak)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 9
 12:00 Concepto Egile – Pinseque (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8
 13:00 Deca Elg. – Eibar (Inf. mut.)
 18:00 Lauko Elg. – Zarautz (Sen. neska.)
 19:45 Alkorta Elg. – Egia (Sen. mut.)
 Domeka, 9
 10:00 Neskak B Elg. – Legazpi (Aleb. neska.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 7
 21:30 Lagunak – LAPKE (3. maila kad.)
 22:15 Lagunak – Urnieta (Pala. 2. nag.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 631 102 186
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 631 101 975
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 626 052 165
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 654 304 337
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 631 572 831
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 616 457 254
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ 632 516 861
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ 638 205 490
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka, Elgoibarren zein inguruko herrietan. ☎ 631 418 130
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ 632 597 073
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ 628 524 420

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, zerbitzari edo dendar lanetarako... ☎ 688 901 667 / 943 530 908
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketarako egiteko. ☎ 699 232 823
- Emakumea lan bila. Etxeak garbitzen, adinekoak zaintzen edo zerbitzari lanetan egingo nuke lan. Orduka, interna, gauzez, egunez. ☎ 626 914 904
- Gizona eskaintzen da lanerako. Garbiketarako egiten eta atezain lanetan esperientzia. Karretila altxagailurako karneta. ☎ 616 370 323
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest, interna. ☎ 699 611 871
- Emakumea lan bila: adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka edo interna. ☎ 689 571 882
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 606 354 982
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 654 938 957
- Emakume gaztea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 632 370 798
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pertsona arduratsua. ☎ 631 004 374
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 636 362 251
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 669 311 385
- Emakumea eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ 632 253 170

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ 943 741 080

ESKAITZA

- Baserrian lan egiteko pertsona behar da. ☎ 666 557 538

ETXEBIZITZAK

- Mutil euskaldunak logela hartuko luke alokairuan, Elgoibarren. ☎ 619 678 826
- Gela bakarreko etxe polit bat alokatzeko dut Elgoibarko erdigunean. ☎ 660 042 159 (Arratsaldean)

BESTELAKOAK

- Spinning egiteko bizikleta salgai. Egoera onean. Prezio oso ona. ☎ 666 110 602
- Bikote batentzako logelarako altzariak salgai. Ume gelarako moisesa, sehaska eta aldagailua ere saltzen ditut. Egoera onean. ☎ 660 606 506

PARTIKULARRAK

- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... klaseak emateko, DBH edota Batxilergoko mailetan. Euskaraz edo gaztelaniaz, bakarka zein taldeka. ☎ 699 495 278



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Azken egunotako euriteak direla eta, gure komunitateko etxe-jabe baten balakoiko erlaitz zati bat jausi egin da. Jakin nahiko nuke hori konpontzea etxe-jabe guztioi dagokigun edo berari bakarrik.

Eraikinaren fatxada, terrazen pareko kanpoko estaldurak, balkoi eta leihoak, elementu komunak dira, eta horrenbestez, komunitateari dagozkio konponketa horiek egitea.

Legeak dio derrigorrezkoa dela eraikinaren mantenurako beharrezko diren obrak edo lanak egitea, eta horretarako ez dela behar aurrez etxe-jabeen batzarraren onespenuk. Etxe jabe guztiak daude behartuta eraikinaren beraren eta zerbitzu eta instalakuntza komun kontserbaziorako egin behar diren lanak egitera, eraikinak segurtasun, irisgarritasun eta bizitzeko behar diren baldintzak bete ditzan.

Eraikinaren mantenurako egin behar diren lanen kostua ordaintzen lagundu beharko dute, beraz, etxe-jabeek, dagokien kuotaren arabera jarritz.

Gomendioa: Praktikan, gomendatzen da aurrez batzar bat egitea, obra horien aurrekontuak onartzeko. Egoera presazkoa bada, presidenteak hartuko ditu behar diren neurriak, eta gero, etxe-jabeen batzarrean emango du horien berri.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Oskari!** Gaztetasun horrek betirako iraun dezala! Zure lagunak.



• Zorionak, **Nerea,** 7 urte egin zenituelako. Patxo handi bat denon partez.



• Zorionak, **mutil handil!** 5 + 4! Aupa txapeldun!



• Zorionak, **Udane,** zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu bat gurasoen, ahizpa Arieneren eta familia osoaren partez.



• Zorionak, **Ane!** Gaur 6 urte egin ditu gure etxeko printzesak! Ondo pasa eta muxu handi bat familiakoaren partez.



• Zorionak, **Jokin,** gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu bat etxekoan, eta bereziki, Maddiren partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Nora,** otsailaren 6an 11 urte egin zenituelako. Maitasunez, familia osoaren, gurasoen eta bereziki, ahizpa Aneren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Jare!** Bihar 2 urtetxo! Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Eneko,** astelehenean 7 urte beteko dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Joneren partez.



• Zorionak, **Naroa,** otsailaren 9an 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Irati** gure dantzariari, igandean 9 urte egingo dituelako. Gurasoen, eta bereziki, ahizpa Uxueren partez.



• Zorionak, **Leireri,** 5 urte bete dituen printzesari, etxeko guztien partez. Besarkada bat eta patxoak.



• Zorionak, **Oier,** zure zazpigarren urtebetetzean. Familiakoaren partez, patxo bat.




• Aupa-aupa! Zorionak, **Leire!** Gaur 2 urte! Ondo-ondo pasa!



• Zorionak, **Markel,** atzo urtetxo bat bete zenuelako! Aitittamama, Joseba eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Nora!** Konturatu orduko, 6 urte! Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Aneren partez.



• Badoaz familiako txikiak ere handitzen! Zorionak, zapatuan **Beñatek** 5 urte eta domekan **Koldok** 9 urte egingo dituztelako. Zorionak, baita, tia Alazneri.

Elgoibarko Herri Eskola

Ikasle bakoitzak bere aukera

Jare

Udane

Maddiren

2014-2015 aurrematrikulazio epea:
otsailaren 3tik 14ra (biak barne).
Ate ireki eguna: otsailak 8

Tel. 943 74 08 79

8 zapatua

Ate irekiak

11:00 Herri Eskolako ate irekiak

Ate irekien eguna ospatuko dute Herri Eskolan. Ikastetxeko atearak zabalik egongo dira, eta guraso zein umeentzako ekitaldiak izango dira. Herri Eskolan.

Erakusketa

18:30 Historiaurreko erreplikak

Jose Julian Marquezek historiaurrean erabiltzen ziren tresnen erreplikak erakutsiko ditu, Kultur Etxean. Hilaren 22ra arte egongo da erakusketa zabalik.

9 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian.

1. *Churumbelarias* (E. Cebrian)
2. *En las estepas de Asia Central* (A. Borodin).
3. *At down they slept* (J. Bocook).
4. *Frank Sinatra in concert* (N. Studnitzky)
5. *Festa Paesana* (J. de Haan).

10 astelehena

Bilera

19:00 'Gure esku dago'

Bilera irekia egingo dute, Kultur Etxeko sotoan.

14 barixakua

Antzerkia

20:30 'Sexpearemente'

Sexpeare Produksioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

Hitzaldia

19:00 'Catalunya

etorkizunerantz'

Jendaurreko elkarrizketa egingo dio Martxelo Otamendi 'Berria'-ko zuzendariak David Fernandez CUPEko diputatuari. Musika Eskolako auditorioan.

ZINEA

«El médico»

7, barixakua: 22:15

8, zapatua: 19:00/22:15

9, domeka: 19:00

10, astelehena: 21:30



«Rodencia y el diente de la princesa»

9, domeka: 16:30

«Canibal»

(Ongarri zinekluba)

13, eguena: 21:30



BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
7 Garitaonandia 8 Etxeberria 9 Etxeberria 10 Fernandez 11 Yudego 12 Zabaleta 13 Barrenetxea	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

Eskulan berria daukagu abian:
Puntua egiten ikasiko dugu.
Izenemate epea, otsailak 9ra arte.



Otsailaren 10ean
birziklapen jolasak!
17:00etatik 19:00etara,
Debabarreneko
Mankomunitateko
adituen eskutik



IDOIA LAKA LIZASO

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela

*Maitea nun zira, nik ez zaitut ikusten,
ez berririk jakiten, nurat galdu zira.*

San Lazaroko lankideak



IDOIA LAKA LIZASO

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela

*Ido, bidaia ona izan argirantz,
eta eskerrik asko bizitzari duintasunez aurre egiten irakasteagatik.*

Sanathana Dharma, yoga eskola



ESKERTZA

JULIAN MARTINEZ LOPEZ

2014ko urtarrilaren 31n hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

LUIS IZAGIRRE ARRIZABALAGA

"Lizundia"

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

LUIS IZAGIRRE ARRIZABALAGA

"Lizundia"

*Ai, osaba maite, gertatu da
inork nahi ez genuena
ez da, ez, txikia izango
uzten diguzun hutsuna
izan zara helduekin jator,
ta umeentzat kuttuna
gizon on ta eredugarri,
inoiz ahaztuko ez zaituguna.*

2014ko urtarrilaren 29an hil zen,
69 urte zituela.

Elorza eta Arrizabalagatar ilobak: Mirari, Eider, Imanol,
Edurne, Iñigo eta Itxaro, Garazi eta Jare txikiak.



VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak

RPS 49/12



EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85